



## EPELeKO BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2008

### 1. TXAPELKETA SISTEMA

Txapelketak ondorengo faseak izango ditu:

- ❖ Lehenurrekoa ligaxka.
- ❖ Finalerdietako ligaxka.
- ❖ Finala.

#### 1.1. LEHENURREKOA LIGAXKA

##### 1.1.1. PARTEHARTZAILEAK

Fase honetan 8 bikote parte hartuko dute, 4 enpresa bakoitzeko.

##### 1.1.2. JARDUNALDIAK

Lehenurreko ligaxkan bikote bakoitzak beste enpresa osotzen duten bikote guztien aurka bi aldiz jokatu beharko du.

Lehenurreko ligaxkan jardunaldiak 8 izango dira. Jardunaldiak 2008ko urtarrilaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta otsailaren 3an, 10an, 17an eta 24an ospatuko dira.

##### 1.1.3. SAILKAPENA

Lehenurreko ligaxkaren sailkapena sailkapen bakar batean burutuko da (bi enpresen bikoteak kontutan hartuz), irabazitako partida bakoitzeko puntu bat lortuz. Zortzi partiden ondoren bikote bakoitzak lortutako puntuak ikusiko da, eta ondoren ligaxkako sailkapena burutuko da. Puntuak batuta berdinketa suertatuko balitz, ondorengo kriterioak kontuan hartuko dira:

- a) Berdinketa enpresa desberdinen bikoteen artean suertatzen bada, hau da, lehenurreko ligaxkan jokatu duten artean:
  - ❖ Lehen kriterioa: Berdinketa lortu duten bikoteen artean, puntu edo garaipen gehien lortu duenak.
  - ❖ Bigarren kriterioa: Lehenurreko ligaxkan berdinketa lortu duten bikoteen tantuen koefizientea ( koefizientea= aldekoak - kontrakoak).
  - ❖ Hirugarren kriterioa: Lehenurreko ligaxkan jokatutako partida guztien tantuen koefizientea (koefizientea = aldekoak - kontrakoak).
  - ❖ Laugarren kriterioa: Lehenurreko ligaxkan galdutako partida guztien artean izandako tanteadorerik baxuena kontuan hartuko da, eta gutxieneko tanteo hori altuen daukan bikotea postu hobeagoa lortuko du. Hala ere, berdinketa mantenduko balitz, galdutako hurrengo partiduaren tanteadorerik altuena kontuan izangoda eta horrela berdinketa bukatu arte.



- ❖ Bostgarren kriterioa: Aurreko kriterioak aplikatuta berdinketa mantenduko balitz zozketaz erabakiko da.
- b) Berdinketa enpresa berdinen bikoteen artean suertatzen bada, hau da, lehenaurreko ligaxkan jokatu ez duten bikoteen artean:
  - ❖ Lehen kriterioa: Lehenaurreko ligaxkan jokaturako partida guztien tantuen koefizientea (koefizientea= aldekoak - kontrakoak).
  - ❖ Bigarren kriterioa: Lehenaurreko ligaxkan galdutako partida guztien artean izandako tanteadorerik baxuena kontuan hartuko da, eta gutxieneko tanteo hori altuen daukan bikotea sailkatuko da. Hala ere, oraindik berdinketa suertatuko balitz galdutako hurrengo partiduen tanteadorerik altuena kontuan hartuko da. Hala ere, berdinketa hori partida bat ere galdu ez duten bikoteen artean suertatuko balitz, irabazitako partida guzti hoietan diferentziarik handiena lortu duen bikotea sailkatuko da. Berdinketa mantendu ezker, bigarrenko diferentziarik handiena lortu duen bikotea sailkatuko da, horrela jarraituz berdinketa ezabatu arte.
  - ❖ Hirugarren kriterioa: Aurreko kriterioak aplikatuta berdinketa mantenduko balitz zozketaz erabakiko da.

#### **1.1.4. ORDEZKAPENAK**

Pilotari batek ezin badu partida bat jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du.

Lehenaurreko ligaxkan bikote baten ordezkoa izan den pilotari batek, fase horretan edo hurrengoetan pilotari horren edo beste pilotari baten ordezkoa izan leike. Lehenaurreko ligaxkan bikotearen pilotari titularrak ezin izango dute beste bikoteen ordezkaria izan.

Lehenaurreko ligaxkan ordezkoa izan den pilotari batek ez da bihurtuko titularra nahiz eta ligaxka honetan bikote berarekin partidu asko edo gutxi jokatu, baita ere ez da bihurtuko titularra nahiz eta partida asko irabazi.

Pilotari ordezeko batek ezin izango du bikotea apurtu, ezintasun justifikatu bat ( lesioa, gaixotasuna, etab.) izan ezik , pilotari titularrak bueltatu arte.

#### **1.2. FINALERDIETAKO LIGAXKA**

##### **1.2.1. PARTEHARTZAILEAK**

Fase honetan 4 bikote parte hartuko dute, enpresa desberdinetakoak izan arren, lehenaurreko ligaxkan posizio hoberenak lortu dituztenak.

##### **1.2.2. JARDUNALDIAK**

Bikote guztien artean jokatu dute, partida bakarrera.



Finalerdietako ligaxkan jardunaldiak hiru izango dira. Jardunaldiak 2008ko martxoaren 2ari, 9ari eta 16ari dagokien asteetan jokatu da.

### 1.2.3. SAILKAPENA

Finalerdietako ligaxkaren sailkapena osatzeko, bikote bakoitzari puntu bat emango zaio irabazitako partidu bakoitzagatik.

Hirugarren jardunaldiaren ondoren, eta lortutako puntuak ikusita, behinbetiko sailkapena ezarriko da. Berdinketa suertatuko balitz, ondorengo kriterioak kontuan hartuko dira:

- ❖ Berdinketa bikote biren artean badago, hauen artean finalerdietako ligaxkan jokaturiko partidua kontuan hartuko da.
- ❖ Berdinketa bi bikote baino gehiagoren artean badago, kriterio hauek kontutan hartuko dira:
  - Hauen artean jokaturiko partiduetan bikote bakoitzaren tanto koefizientea (aldeko tantoak ken kontrako tantoak) hartuko da kontuan.
  - Berdinketa mantentzen bada, finalerdietako ligaxkako partidu guztietako tanto koefizientea hartuko da kontuan.
  - Aurreko erizpideak ezarri ondoren berdinketarik badago, lehenurreko ligaxkan posizio hobea lortu duen bikoteak sailkatuko da.

### 1.2.4. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu partida bat edo gehiago jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du.

Lehenurreko ligaxkan bikote baten edo batzuen ordezkaria izandakoa, finalerdietan beste bikote desberdin baten ordezkaria izan leike. Honen kontra, finalerdietan ordezkari moduan jokatzeko duen pilotari batek ezin izango du fase honetan beste bikote baten ordezkaria izan. Bikotearen pilotari titularrak ezin izango dute finalerdietako fase honetan zehar beste bikoteen ordezkaria izan.

Ordezko moduan bikote berarekin finalerdietako ligaxka honetan zehar bi edo hiru partida jokatzeko dituen pilotariak, eta bi partida horiek irabazten baditu ondorengo faseko sailkatuz, bikote horretako pilotari titularra bihurtuko da; nahiz eta hasieran titular gisa izendatua zegoen pilotaria hurrengo fasean parte hartzeko prest egon.

Pilotari ordezkari batek ezin izango du bikotea apurtu, ezintasun justifikatu bat (lesioa, gaixotasuna, etab.) izan ezik, pilotari titularrak bueltatu arte.

## 1.3. FINALA

### 1.3.1. PARTEHARTZAILEAK

Finala finalerdietan lehenengo eta bigarren postua lortu duten bikoteen artean jokatu da.



### **1.3.2. JARDUNALDIAK**

Finala 2008.eko martxoaren 30an jokatu da, partida bakarrean.

### **1.3.3. ORDEZKAPENAK**

Pilotari batek ezin badu finala jokatu bere bikotearekin, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du. Txapelketa honetan zehar titular moduan jokatu duten pilotariak, ezin izango dute ordezkariak izan finalako partiduan.

Finalean parte hartzen duten bikoteak enpresa berdinekoak badira, ezin izango da izendatu finalerdietan ordezkari bezala jokatu duen pilotari bat.

## **2. TXAPELKETAREN ARAUAK**

### **2.1. ATSEDENALDIAK**

#### **2.1.1. Epaile kontrolatzailea**

Kontrola, pilotari, epaile eta ikusleekin komunikatze lana, eta partidetan zehar ematen diren atsedenaldiekin lotuta dagoen zigortze gaitasuna baita, epaile kontrolatzaileak beteko du.

#### **2.1.2. Atsedenaldien eskaera**

Atsedenaldia bikote edo botileroak eskatu beharko dute, eta epaileari argi adierazi beharko diote. Bikote edo botilero biek atsedenaldia batera eskatu ezker, atsedenaldi hau azken tantua galdu duen bikoteari zenbatuko zaio. Ezin izango da atsedenaldia eskatu azken tantua zuzenean sakez lortu izan denean.

#### **2.1.3. Atsedenaldien denbora eta kopurua**

Bikote bakoitzak gehienez 2 minututako 4 atsedenaldi eskatu ahal izango ditu partidaren zehar. Partida 21 tantutara berdindurik egon ezker, eta bikote biek beraien atsedenaldi guztiak agortu izan badituzte, epaile nagusiak neurri bereko atsedenaldi berri bat eman dezake. Atsedenaldiaren denbora tantua bukatzen den unetik zenbatzen hasiko da, bikoteak zein momentuan eskatzen duen kontuan izan gabe. Atsedenaldiaren bitartean pilotariak eta botileroak atsedenaldietarako prestatutako setan egon beharko dira.

#### **2.1.4. Atsedenaldien seinalizazioa**

Epaile kontrolatzaileak pilotari eta ikuslei atsedenaldiak adieraziko dizkie ondorengo araei jarraituz:

##### **2.1.4.1. Atsedenaldiaren zenbakia eta eskatzen duen bikotea**

Atsedenaldia eskatu duen pilotariari dagokion kartoi-mehe gorri edo urdina erakutsiko du. Kartoi-mehe honek, gorria edo urdina, zenbaki bat eramango du idatzita; zenbaki honek atsedenaldia zein den adieraziko du.



#### **2.1.4.2. Atsedenaldiaren amaiera**

Atsedenaldia bukatzeko 20 segundu faltatzen direnean, kolore orlegiko kartoi-mehea erakutsiko du, eta pilotariak kantxara abiatu beharko dira momentu horretan bertan.

#### **2.1.5. Kantxa uztea**

Pilotari batek ezin du kantxa utzi epaile kontrolatzailearen baimena izan gabe. Honek baimena ematen badio kantxatik kanpo lagunduko dio. Pilotariak aldageletara joan ahal izateko baldintzak ondokoak dira:

- ❖ Laguntza medikuaren beharra.
- ❖ Komunera joateko premiazko beharra izatea.
- ❖ Kirol janzkeraren aldaketaren beharra, eskuen babesaren beharra honen baitan ez dela kontsideratzen.

Aldageletara sartzea, arrazoia edozein izanda ere, atsedenaldi moduan kontuan hartuko da, eta benetan premiazkoa den uneraino luzatuko da bakarrik.

#### **2.1.6. Atsedenaldirik ez betetzea**

Pilotari batek, kartoi-mehe orlegia altxatua izan eta gero, kantxara habiatzen ez bada, kartoi-mehe zuria erakutsiko zaio; eta hau ohar moduan kontsideratuko da. Epaile kontrolatzaileak kartoi-mehe beltza erakutsiko dio pilotari bati ondorengo kasuetan:

- ❖ Kartoi-mehe zuria erakutsi ondoren jaramonik egiten ez badu.
- ❖ Aldageletan izandako sartze horrek justifikaziorik ez daukanean.
- ❖ Atsedenaldirik eskatu gabe, epaile kontrolatzaileak pilotari batek jokua etentzeko jarrera agertzen duela ulertzen duenean.

Kartoi-mehe beltzen ezarketa partidaren aktan adieraziko da.

### **2.2. KONTROL ANTIDOPINAK**

Txapelketan zehar kontrol antidopinak ezarri ahal izango dira. Kontrol hauek EPELeko Antidoping Arautegiaren arabera ezarriko dira.

### **2.3. TXAPELKETATIK BAZTERTZEA**

EPELek uste izango balu pilotari batek txapelketan parte hartzen jarraitzeko baldintza fisiko egokietan ez dagoela, Kirol Batzordeari eta pilotariari berari entzun eta gero, EPELeko Epaile Bakarrak pilotari hori txapelketatik kendu ahal izango du arrazoibidez.

### **3. ISTILUEN EBAZPENA ETA ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA**

Araudi honen inguruan, edo araudiak aurreikusten ez duen edozein kasuen inguruan, sor daitezkeen eztabaidak konpontzea EPELeko Txapelketako Epaile bakarrari dagokio, eta bere iritzia apelaezina izango da.